

Euskarazko estreinaldien inguruko datuen azterketa

2016-2020

Ikerketaren koordinatzailea: Lali Marimon

Txostenaren erredakzioa: Agus Perez, Lali Marimon

Aholkularitza Access eta Excel programetan: Juan Jose Areso



OHARRA

Jarraian irakurri daitekeena ikerketaren LABURPENA da. Ikerketaren bolumenagatik, ez ditugu bertan sartu proiektu bakoitzaren fitxa, elkarrizketatu guztien direktorioa eta jasotako estreinaldien zerrenda zehatza. Ikerketa osorik ezagutzeko, idatzi email honetara: info@ehaze.eus

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK	4
2. DATUEN IRAKURKETA ATALEZ ATAL.....	5
2.1 Antzemandako konpainiak edo taldeak.....	5
2.2 Ikerketaren epean izandako estreinaldiak.....	6
2.3 Ikusleen adina	7
2.4 Antzerki mota	8
2.5 Estreinaldi kopurua	9
2.6 Emanaldi kopurua	11
2.7 Estreinaldi kopurua urteka	13
2.8 Jasotako laguntzak	14
2.9 Emakumeen pisua.....	15
2.10 Euskarari begira	16
3. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO PERSPEKTIBAK.....	17

1. AURREKARIAK

2020ko azaroaren 10ean EHAZEK lan-proposamen batzuk aurkeztu zituen «zaintzearen eta saretzearen filosofiarekin bat eginez, eskura dauzkan baliabideen eta proiektuen arabera», deialdian bertan azaldu zenez.

Euskarazko estreinaldien inguruko datuen azterketa deitu zen lan-eskaintza haietariko bat, eta, osagarri bezala, honako hau zioen deialdiak: «EHAZEK azken hiru denboraldietako estreinaldien zerrenda osatu du, helduei zuzenduriko euskarazko antzerkian. Datu horien gaineko ikerketa laburra egin nahi dugu orain, euskarazko teatroaren inguruko ahalik eta argazkirik zehatzena osatzeko: zer nolako estreinaldiak izan dira? Zenbat emanaldi egin dira bakoitzetik? Haietako zenbat proiektu dira kultur elkarte, zenbat enpresa, autonomo, kooperatiba...? Zenbatero estreinatzen dituzte talde horiek haien lanak, eta ze baldintzatan? Zenbat antzezlan dira emakumeek zuzendutakoak? Zenbat testu dira euskarazko originalak? ...?»

Bigarren txatal batean zehazten zen «azken denboraldietako estreinaldietako zerrendetatik tiraka, galdetegi bat osatu [beharko zela] talde bakoitzarekin harremanetan jarrita». Alde horretatik, datu-bilketarako abiapuntu sendoa izan da hiru hamarkadatan antzerkiari buruz pilatu eta sailkatu dugun informazioa.

2. DATUEN IRAKURKETA ATALETZ ATAL

2.1 Antzemandako konpainiak edo taldeak


Hasiera batean 127 + 7 pastoral (134 guztira) antzeman ziren.

Hala ere, 134 horietatik 13 konpainia kendu behar izan ditugu, ezin izan dugulako beren estreinaldi(ar)en datak jakin. Horrek 114 + 7 ematen digu datuen irakurketarako (114 konpainia gehi 7 pastoral), guztira 121 konpainia.

Konpainia mota izeneko arloan kopuru hauek agertu dira:

- 1 arte eszeniko plataforma (Artedrama)
- 2 antzoki ekoizle
- 3 kooperatiba
- 7 pastoral
- 8 kolektibo
- 11 ekoizpen-etxe (= ekoiztetxe)
- 13 SL, SA, Sleta 'Profesionala' (Chimères-en kasuan)
- 17talde amateur
- 18 kultur-elkarte edo elkarte artistiko
- 22 autonomo

19 kasutan ezin izan dugu taldearen izaera argitu



OHARRA

Pastoralen kasua berezia da denok dakigunez, baina konpainia izaera eman diegu, oso zaila izaten delako produktu eszenikoaren talde sortzailearen izaera beste edozein kategoriatan sartzea. Pastoral bakoitzeko konpainiari herri sortzaile(ar)en izena eman zaio. Adibidez, *Ohiberritze*, *Jean Pitrau* pastoralaren konpainiari Atharratze-Sorholüze deitu diogu.

2.2 Ikerketaren epean izandako estreinaldiak

Laginaren eremua finkatzeko irizpideen arabera, 2016tik 2020ra bitarteko urteetan (biak barne) 286 estreinaldi izan dira euskaraz.

OHARRA


Egitarau bakarlean hainbat pieza labur daudenean, hauek ez ditugu kontuan hartu, eta bakarrik konputatu da egitarau osoari emandako izena. Adibidea: *Strep-tease* delakoren barruan lau pieza labur egon ziren, baina estreinaldi bakartzat jo dugu.

Ordea, pieza horietariko bat besteetatik aparte antzetzua izan bada, pieza labur hori ere jo dugu estreinalditzat. Adibidea: *Oxido*. *Umore garratza*-ren barruan *Homo amabilis* zegoen eta hura ere antzetzua izan da aparte. Kasu horretan, bi estreinaldi konputatu dira: *Oxido* eta *Homo amabilis*.

2.3 Ikusleen adina

Ikusleen adinaren arabera, kategoria eta kopuru hauek agertu zaizkigu:

- Haurrak:50 (17%)
- Nerabeak edo gaztetxoak:5 (2%)
- Helduak:195 (68%)
- Adin guztiak:36 (13%)



OHARRAK

Konpainia batzuek 'publiko familiarra' kontzeptua baliatzen dute, egiatan haur-antzerkia dena izendatzeko. Horregatik hobetsi dugu 'haur-antzerki' kontzeptua, nahiz eta emanaldi horietara, noski, gurasoak ere joaten diren.


'Adin guztiak' kategorian pastoralak, kale-antzerkia eta herri-antzerkia sartu ditugu, haietan ez delako ikusleen adina bereizten.

Lan bakoitzari emandako kategoria datu-baseko *Ikusleen adina* izeneko eranskinean agertzen da.

2.4 Antzerki mota

Antzerki motaren arabera, kategoria eta kopuru hauek agertu zaizkigu (kategoriai ordena alfabetikoan daude):

- Antzerkia orokorrean (testuko antzerkia, argumentuzkoa, italiar erakoa), nahiz eta ume edo gaztetxoentzat izan (*Lur, Kaskarot, Käffka...*): 195 (68%)
- Antzerki laburra: 24 (8%)
- Antzerki musikatua (antzerki musikatua, musikalak, kabareta...): 19 (7%)
- Clown eta pailazoak: 9 (3%)
- Herri-antzerkia (herri edo eskualde bateko biztanleek edo kolektiboek egin): 3 (1%)
- Irakurketa dramatizatua (performance itxurakoak barne): 2 (1%)
- Kale-antzerkia: 1 (5%)
- Pastoralak: 7 (2%)
- Performanceak: 12 (4%)




2.5 Estreinaldi kopurua

Konpainien araberako estreinaldi kopuruaren banaketa

Ikerketaren epean horrela banatu dira estreinaldiak konpainien artean:

- Estreinaldi bakarra:58 konpainiak estreinaldi bakarra egin dute
- 2 estreinaldi:25 konpainiak
- 3 estreinaldi:12 konpainiak
- 4 estreinaldi:6 konpainiak
- 5 estreinaldi:13 konpainiak
- 6 estreinaldi:0 konpainiak
- 7 estreinaldi:1 (konpainia batek)
- 8 estreinaldi:2 konpainiak
- 9 estreinaldi:1 (konpainia batek)
- 10 estreinaldi:.....1 (konpainia batek)
- 11 estreinaldi:.....1 (konpainia batek)
- 12 estreinaldi:0 konpainiak
- 13 estreinaldi:0 konpainiak
- 14 estreinaldi:1 (konpainia batek)



Konpainien araberako estreinaldi kopuruaren banaketa

OHARRAK

'Konpainia' kontzeptuan era guztietako taldeak bildu ditugu (pertsonek bakarrekoak, amateurrak, ekoizpen-etxeak, antzoki ekoizleak...).

Antz3rkiz delako elkarteak konpainia bakartzat jo dugu eta goiko zerrendakoen artean kokatu dugu.

10 estreinalditan konpainia batek baino gehiagok hartu dute parte antzezlanaren ekoizpenean (koproduktzioak dira).

Koprodukzioen kasuetan ez ditugu kontuan hartu (ez ditugu koprodukzio bezala jo) Euskal Herritik kanpoko konpainiak (Pentación) ez eta antzerki munduaren parte ez direnak (Ikerfolk). Kasu horietan Euskal Herriko konpainia edota antzerki arlokoa hartu dugu kontuan bakarrik.

Irizpide horiei jarraituz, 10 koprodukzio izan dira ikerketaren epean, 24 konpainiak eraginda. Horrek 300 estreinaldi ematen digu, baina kopuru hori itxurazkoa da, tartean izandako 10 koprodukzioen eraginez. Adibide batekin hobeto ulertuko da korapiloa: *Erlauntza* Arriaga eta Vaiven arteko koprodukzioa da. Beraz, Vaiven-ek estreinaldi bat izan du eta Arriagak ere bai. Bi estreinaldi konputatu dira obra bakarrerako, baina kontua da jakitea zenbat estreinaldi izan duen konpainia bakoitzak. Hortik errepikapenak eta itxurazko kopuruak batuketak egiterakoan.

Koprodukzioetatik sortutako estreinaldi kopuruak hauek dira:

- 6 estreinaldi 2 konpainiaren arteko koprodukzioak izan dira
- 4 estreinaldi 3 konpainiaren arteko koprodukzioak izan dira


Datuok *Estreinaldi kopurua* izeneko eranskinean daude jasota.

2.6 Emanaldi kopurua

Estreinaldi bakoitzak izan duen emanaldi kopurua (boloak)

- Bolo bakarra: 31 estreinaldik izan dute
- 2 bolo: 15 estreinaldik
- 3 bolo: 22 estreinaldik
- 4 bolo: 7 estreinaldik
- 5 bolo: 10 estreinaldik
- 6 bolo: 14 estreinaldik
- 7 bolo: 8 estreinaldik
- 8 bolo: 7 estreinaldik
- 9 bolo: 4 estreinaldik
- 10 bolo: 3 estreinaldik
- 11 eta 20 arteko bolo: 30 estreinaldik
- 21 eta 30 arteko bolo: 21 estreinaldik
- 31 eta 40 arteko bolo: 13 estreinaldik
- 41 eta 50 arteko bolo: 15 estreinaldik
- 51 eta 60 arteko bolo: 2 estreinaldik
- 61 eta 70 arteko bolo: 4 estreinaldik
- 71 eta 80 arteko bolo: 0 estreinaldik
- 81 eta 90 arteko bolo: 2 estreinaldik
- 91 eta 100 arteko bolo: 2 estreinaldik
- 100 baino gehiago (120 bolo inguru): 2 estreinaldik

73 kasutan ezin izan dugu jakin zenbat bolo izan dituzten estreinaldiek.



OHARRAK


Une batetik aurrera, hamarnako tartetan ematen ditugubolo kopuruak, konpainia askori oso zaila egin zaielako emanaldi kopurua zehaztea, eta kasu askotan gutxi gorabeherako datuak eman dizkigutelako.

Grafikoa ondo interpretatzeko, kontuan izan lehenengo bi zutabeak bosnaka batu ditugula bolo kopuruak, eta hortik aurrera hamarnaka.

Datuok *Emanaldi kopurua (boloak)* izeneko eranskinean daude jasota.

2.7 Estreinaldi kopurua urteka

- 2016an:43 estreinaldi
- 2017an:61 estreinaldi
- 2018an:59 estreinaldi
- 2019an:65 estreinaldi
- 2020an:58 estreinaldi



Estreinaldi kopurua urteka

OHARRAK

Ikusten denez, 2016tik 2017ra igoera nabarmena izan zela euskarazko estreinaldietan, eta hortik aurrera 60 inguru estreinaldi izan dira urte bakoitzean.

Bestalde, badirudi 2020ak ez duela eragin nabarmenik izan estreinaldi kopuruan, konfinamendu gogorreko hila-beteetan bertan behera geratu zirenak hala edo nola berreskuratu zirelako hurrengo hilabeteetan.

Kasu batzuetan, ezin izan dugu estreinaldiaren data zehatza jakin (urtea baino ez dakigu). Horrelako kasuetan, 2020-1-1 (edo 'dagokion urtea'-1-1) jarri dugu datu-basean, dagokion urtean konputatua gera dadin. Horrela izanik, laster antzemango da itxurazkoak direla eguna eta hilabetea (ez urtea), inork ez duelako estreinaldirik egiten Urteberri egunean.

Datuok *Estreinaldi kopuruak* urteka izeneko eranskinean daude jasota.

2.8 Jasotako laguntzak

Egia esan, konpainiei formularioak helarazi ahala konturatu gara jasotako laguntzen kontua oso auzi sentikorra dela konpainia askorentzat. Haietariko askok ez dute erantzun (edo erantzun nahi izan), eta arlo honetako konputuak ohi baino kopuru urriagoekin osatu dira.

Jarraian datozen datuak estreinaldiei dagozkie eta ez konpainiei, konpainia batek obra baterako laguntzak eskuratu dezakeelako eta hurrengo baterako ez.

- 159 estreinalditan: ez dugu daturik
- 27 estreinalditan: laguntzak eskatu bai, baina lortu ez
- 100 estreinalditan: laguntzaren bat eskuratu dute


OHARRA

Datuok *Jasotako laguntzak* izeneko eranskinean daude jasota.

2.9 Emakumeen pisua

Emakumeen pisua neurtzea izan da EHAZEren asmo nagusietariko bat ikerketa honetarako, baina horrek beste ikerketa zabalago bat eskatuko luke, Eneritz Artetxe Aranazek zabaldutako ildoari jarraituz. Oraingo ikerketan emakume zuzendarien kopurua neurtu dugu, estreinaldiak kontuan hartuz (ez konpainiak).

- Emakumeak: 120 (39%)
- Gizonak: 131 (43%)
- Zuzendaritza kolektiboa: 37 (12%)
- Daturik gabe: 19 (6%)



OHARRA

Guztira, zuzendariak (emakumeak + gizonak) gehiago dira obrak baino, baina kontuan hartu behar dugu antzezlan batzuetan bi zuzendari edo gehiago egon daitezkeela.

Datuok *Emakumeen pisua* izeneko eranskinean daude jasota.

2.10 Euskarari begira

Euskarari begira, alderdi hauek hartu dira kontuan eta kopuru hauek eman dira. Kontuan hartu behar da ezarritako arloak ez direla elkarren baztertzaila:

- Zenbat obra izan diren euskaraz jatorriz eginak: 150
- Zenbat obra izan diren beste hizkuntza batetik euskaratuak: 81
- Zenbat obrak izan duten bi bertsio: 84
- Zenbat obra izan diren elebidun (euskara eta erdararen bat emanaldi berean): 11

55 kasutan ez dugu daturik.

Bestetik, hona hemen euskarak obra elebidunetan izan duen pisua. Euskararen proportzioa irizpide subjektiboetan oinarrituta egin da, batzuetan geure pertzepziotik eta beste batzuetan konpainiek beraiek esandakotik.

- %20: 2 antzezlan
- %40: 1 (antzezlan bat)
- %50: 4 antzezlan
- %60: 1 (antzezlan bat)
- %70: 1 (antzezlan bat)
- %80: 1 (antzezlan bat)
- %90: 1 (antzezlan bat)

OHARRA

Euskarak %90 baino gehiago izan denean, euskara hutsezkotzat jo dugu obra.

Datuok *Euskarari begira* izeneko eranskinean daude jasota.

3. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO PERSPEKTIBAK

Ikerketa honetan 2016-2020 arteko epean (bi urteak barne) izandako euskarazko estreinaldiak jaso eta haien atzean dauden arlo artistikoetako arduradunak (egileak, zuzendaria, musikariak...) zein konpainietako izaera eta egoera jaso eta konputatu dira.

Zailtasunak zailtasun, Euskal Herrian ikerketaren epean existitu diren edota existitzen diren konpainia ia guztien eta haien kontaktuen zerrenda bateratua egin da, eta, albo ondorio bezala, talde edo sortzaile askok EHAZERen eta haren lanaren notizia izan dute. Gainera, haietariko gehienak (den-denak ez esatearren) oso eskertuta agertu dira ikerketa honen kontura. Uste dugu horrek aukera ematen diola EHAZERi presentego ego- teko orain arte esploratu gabeko eremu batzuetan.

Era berean, eta datuen irakurketa posibleez gain, talde edo konpainia bakoitzeko fitxa osatu da (zenbait hutsunerekin kasuan kasu), galdetegiaren hiru blokeetako informa- zioekin eta taldearen kontaktuarekin (telefonoa eta helbide elektronikoa).

Etorkizunari begira, arlo nagusi hauek aurreikusten ditugu:

- Falta diren konpainien datuak orain arteko datu-basean txertatzea
- 2016tik baino lehenagoko urteetako datuak batzea (seguruenik orain baino era sin- plifikatuagoan)
- 2021etik aurrerako datuak jasotzen jarraitzea
- Orain batu diren datuen beste irakurketa batzuk egin edo, haietatik tiraka, euskaraz- ko antzerkiaren egoera sozializatzea



**EUSKARAZKO ESTREINALDIEN INGURUKO
DATUEN AZTERKETA**

2016-2020

**EHAZE-Antzerkizale elkarte
Agus Perez, Lali Marimon**

info@ehaze.eus